

**TURISMO, MERKATARITZA ETA
KONTSUMOKO SAILBURUAREN
AGINDUA, "TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILAREN SEEP
FUNTSAK KUDEATZEKO PROZEDUREN
ESKULIBURUA" ONARTZEN DUENA****ORDEN DEL CONSEJERO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO, POR LA QUE
SE APRUEBA EL "MANUAL DE
PROCEDIMIENTOS PARA LA GESTIÓN
DE FONDOS DEL PRTR DEL
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO"**

2020ko uztailaren 21ean, Europako Kontseiluak Suspertze Planari eta 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparruari buruzko ondorioak onartu zituen. Neurri horiek bat egiten dute 2021-2027rako urte anitzeko finantza-esparruarekin (UAFE), eta indartu egiten dute Europako Suspertze Tresna («Next Generation EU») abian jartzea. Europako Suspertze Tresna horren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da, hain zuzen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritakoa.

Europako Suspertze Funtsekin finantza-baliabideak egikartzeko tresna Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren bidez gauzatu da (aurrerantzean, SEEP). Plana Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen.

SEEPean planteatutako ekimenak gauzatzeko, administrazio publikoek kudeaketa- eta jarraipen-prozedurak eta kontrol-eredua egokitu behar dituzte. Kontrol eta Kudeaketa Prozeduren Eskuliburuak kudeaketa-, jarraipen- eta kontrol-sistema berri horren aplikazioa erraztu nahi du, ahalik eta eraginkortasun, efizientzia, bikaintasun eta zorrotasun handiena lortzeko SEEParen neurrien aplikazioan, suspertze-funts komunitario horien ahalmen eraldatzailea pertsona eta operadore publiko eta pribatu gehienengana, eta, oro har, herritar guztiengana irits dadin.

Eusko Jaurlaritzaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren informaziorako eta jarraipenerako Sailarteko Batzordeak 2023ko urtarrilaren 19an

El 21 de julio de 2020, el Consejo Europeo adoptó las Conclusiones sobre el Plan de Recuperación y el marco financiero plurianual para 2021-2027. Estas medidas aúnan el marco financiero plurianual (MFP) para 2021-2027, reforzado por la puesta en marcha de un Instrumento Europeo de Recuperación («Next Generation EU»), cuyo elemento central es el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia, establecido por el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021.

La instrumentación de la ejecución de los recursos financieros del Fondo Europeo de Recuperación se realizará a través del Plan de Recuperación Transformación y Resiliencia (en adelante PRTR), aprobado por Acuerdo del Consejo de Ministros de 27 de abril de 2021.

Para hacer efectivas las iniciativas planteadas en el PRTR, las Administraciones Públicas deben adaptar los procedimientos de gestión, seguimiento y el modelo de control. El Manual de Procedimientos de Control y Gestión persigue facilitar la aplicación de este nuevo sistema de gestión, seguimiento y control, para lograr la mayor eficacia, eficiencia, excelencia y rigor en la aplicación de las Medidas del PRTR, con el objetivo de que el potencial transformador de estos fondos comunitarios de recuperación llegue al mayor número de personas, operadores públicos y privados, y en general al conjunto de la ciudadanía.

La Comisión Interdepartamental para la información y seguimiento del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia del Gobierno Vasco, con fecha 19 de enero de 2023,

Donostia / San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





erabaki zuen Kontrol eta Kudeaketa Prozeduren Eskuliburuaren Gida onartzea.

2023ko otsailaren 24an, aipatutako Sailarteko Batzordeak Kontrol eta Kudeaketa Prozeduren Eskuliburuaren Gida aldatzea onartu zuen, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean jarri ondoren. Agindu hori SEEPa gauzatzen duten prozeduretako interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa da.

Gidaren bederatzigarren atalak dio Sailak arduratuko direla beren Kontrol eta Kudeaketa Prozeduren Eskuliburuez, eta egokitu, berrikusi eta eguneratu egin beharko dutela, urtean behin gutxienez, edo, betiere, aldaketa garrantzitsuak egin behar direla uste dutenean.

Horrenbestez, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduak (EB), abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak, irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduak, irailaren 29ko HFP 1031/2021 Aginduak eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakiak ematen didaten eskumena baliatuz, STEPari lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez, iruzurraren aurkako neurrien plana, zeina Iruzurraren aurkako Akordioaren bidez onartu baitzen,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. – Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren SEEParen Funtsak Kudeatzeko Prozeduren Eskuliburua onartzea. Eskuliburua Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (Next Generation EU) kargura finantzatutako

acordó la aprobación de la Guía del Manual de Procedimientos de Control y Gestión.

Con fecha de 24 de febrero de 2023 la citada Comisión Interdepartamental aprobó la modificación de la Guía del Manual de Procedimientos de Control y Gestión tras la entrada en vigor de la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR.

El apartado noveno de la referida guía contempla que los Departamentos serán responsables de sus propios Manuales de Procedimiento de Control y Gestión, teniendo que adaptarlo, revisarlo y actualizarlo, al menos una vez al año o, siempre y cuando se considere que es necesario incorporar cambios relevantes.

En su virtud, y en el ejercicio de la competencia que me otorga el artículo 26.4º de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, el Decreto 13/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, el Real Decreto Ley 36/2020, de 30 de diciembre, la Orden HFP 1030/2021, de 29 de septiembre, la Orden HFP 1031/2021, de 29 de septiembre, y el Acuerdo de Consejo de Gobierno, de 8 de febrero de 2022, en relación con la ejecución presupuestaria y contable, gestión y seguimiento de las actuaciones y proyectos vinculados al PRTR, el Plan de Medidas Antifraude aprobado por Acuerdo del Consejo del Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de marzo de 2022,

RESUELVO

PRIMERO. – Aprobar el “Manual de Procedimientos para la Gestión de Fondos del PRTR del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo”, de aplicación en proyectos financiados con cargo al Mecanismo de Recuperación y Resiliencia



proiektuetan aplikatuko da, agindu honen eranskin gisa gehitu den SEEPa betez.

BIGARRENA. – SEEParen Funtsak Kudeatzeko Prozeduren Eskuliburuaren onarpena argitaratzeko agintzea. Horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, sailaren webgunean, gardentasun-atarian eta dagokion bitarteko ofizialean argitaratuko da.

HIRUGARRENA. – Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren titularraren esku uztea Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren SEEParen Funtsak Kudeatzeko Prozeduren Eskuliburuko funtsezkoak ez diren aldaketen onarpena.

(Next Generation EU) en ejecución del PRTR que se adjunta como anexo a esta Orden.

SEGUNDO. – Ordenar la publicación de la aprobación del “Manual de Procedimientos para la Gestión de Fondos del PRTR” mediante la inserción en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en la web del Departamento, en el portal de transparencia y en los medios oficiales que procedan.

TERCERO. – Delegar en la persona titular de la Dirección de Servicios del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo la aprobación de las eventuales modificaciones de carácter no sustantivas del “Manual de Procedimientos para la Gestión de Fondos del PRTR del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo”.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean /

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILEKO SAILBURUA
CONSEJERO DEL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO